

MEMORIA

ZINE EKAINAK JUNIO JUNE 2025
GOAK 23-30

WWW.ZINEGOAK.COM

Bilboko LGTBIQ+ 22. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia
22° Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas LGTBIQ+ de Bilbao
22nd Bilbao International LGTBIQ+ Film and Performing Arts Festival



MEMORIA

ZINE GOAK

EKAINAK
JUNIO
JUNE 2025
23-30

WWW.ZINEGOAK.COM

Bilboko LGTBIQ+ 22. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia
22º Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas LGTBIQ+ de Bilbao
22nd Bilbao International LGTBIQ+ Film and Performing Arts Festival

ZINEGOAK 22 EDIZIO BILBON ETA... 22 EDICIONES EN BILBAO Y...	3
SARRERA ETA HELBURU OROKORRA INTRODUCCIÓN Y OBJETIVO GENERAL	4
OHOREZKO SARIA PREMIO HONORÍFICO CLARISA NAVAS	5
3,2,1...ZINEGOAK!	6
EGITARAUA PROGRAMACIÓN FIK DOK KRAK	7
EGITARAUA PROGRAMACIÓN BEGIRADAK	8
EKINTZA BEREZIAK ACTIVIDADES ESPECIALES	9
EZTABAIDA ETA HAUSNARKETA ENCUENTROS DEBATE Y REFLEXIÓN BILGUNE	10
ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS	11
EKITALDIAK GALAS	12
ZGPRO	13
ZINEGOGOAK	14
ZG HEDAPENA	15
ZINEGOAK ZENBAKITAN EN NÚMEROS ÉXITO Y ALCANCE	16
OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO EN LOS MEDIOS	18

ZINEGOAK 22 EDIZIO BILBON eta PROIEKTUAK... 22 EDICIONES en BILBAO y PROYECTOS en...

Araba

Aiara • Amurrio • Laudio

Bizkaia

Bakio • Balmaseda • Barakaldo • Basauri • Bermeo • Durango • Erandio • Galdakao • Igorre • Mallabia • Merkina - Xemein • Mungia • Muskiz • Ondarroa • Orozko • Plentzia • Sestao • Sopela • Zaldibar •

Gipuzkoa

Aduna • Arrasate • Astigarraga • Azpeitia • Beasain • Bergara • Deba • Donostia • Eibar • Hernani • Hondarribia • Lazkao • Legazpi • Legorreta • Oiartzun • Oñati • Ordizia • Orio • Tolosa • Villabona • Zaldibia • Zumaia • Zumarraga

Nafarroa

Baztan • Oltza Zendea Cendea de Olza • Zizur Nagusia



LAN ILDOAK DITU: QUE TRABAJA POR...

1 Tratu-berdintasuna, sexu-, identitate- eta/edo genero-askatasunarekiko errespetua eta bizikidetzaren sustapena kulturaren bidez: zinema, antzerkia, literatura, musika eta LGTBIQ+ proiektuen sorkuntza.

Fomentar la igualdad de trato, el respeto a la libertad sexual, de identidad y/o de género, y la convivencia a través de la cultura: el cine, el teatro, la literatura, la música y la creación de proyectos LGTBIQ+.

2 Elkartu, laguntza eskaini, hausnartu eta eztabaidatzea.

Ser plataforma y espacio de encuentro, apoyo, reflexión y debate.

3 Biztanleriaren sektore guztiak sensibildatzea eta inplikatzeko, arreta pertsona gazteenengan eta biztanleria seniorrengan jarri.

Sensibilizar e implicar a todos los sectores de población poniendo el foco en las personas más jóvenes y en la población senior.

4 Sortutako lurraldean sare bat zabaltzea (50 udalerrri baino gehiago Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, estatuko eta nazioarteko konexioak, LGTBIQ+ Europa Hegoaldeko Jaialdien Sarearen parte izanik).

Extenderse por el territorio creando una red (+50 poblaciones entre Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, conexiones estatales e internacionales, formando parte de la Red de Festivales LGTBIQ+ Europa Sur).

SARRERA ETA HELBURU, OROKORRA INTRODUCCIÓN Y OBJETIVO GENERAL

Zinegoak hazten ari da, eta erronka berriei eta errealitate berriei egokitzeko saiakeran dihardu. Izan ere, kultura-jarduera garrantzitsua izateaz gain, gizartea eraldatzeko tresna sendoa da. Gaur egun, 22 edizioen ondoren, Zinegoak erreferente bihurtu da estatu mailan eta nazioartean, eta programazioan filmak, obra eszenikoak, dantza, errezitaldiak, liburuen aurkezpenak, mahai-inguruak, industria-gune bat eta sexu-aniztasunaren inguruko proiektu hedatuak ditu.

Zinegoak 2025k gizartean dauden gogoeta nagusietako batzuk entzun ditu, eta aretoetara eraman ditu hainbat proposamen kulturalen bidez, nor garen eta nola bizi nahi dugun erabakitzeko askatasuna aldarrikatuz. Hori guztia egitean, begirada zabala izan dugu sexu-dibertsitatea, askotariko orientazioak, genero-identitatearen eraikuntza eta sexualitateari lotutako beste edozein elementu jorratzeko, eta estimu-sareetan eta erresistentzia-eremuetan jarri dugu arreta. Iraganera eta etorkizunera begiratuz, egitura tradizional, hegemoniko eta patriarkaletatik harago doazen ereduak birpentsatu ditugu, geureak sortzeko: erresistentziarako espazioak, estimuak eta aitortza sostengatzen eta bultzatzen dituzten egiturak, non askotariko errealitateak baitabilza elkarrekin, gure gizarteak mundu osoan gurutzatzen dituzten orotariko zapalkuntza-sistemei aurre egiteko eta haiak gainditzeko helburua dutenak.

Zinegoak 22. edizioa ekainaren 23an hasi zen ofizialki, Arriaga Antzokian egin zen irekiera ekitaldiarekin, eta ekainaren 30ean amaitu zen, astelehenean, sari banaketarekin eta jaialdiaren amaierarekin. Hasiera ofiziala eman aurreko asteburuan 3,2,1... Zinegoak! ospatu genuen.

Gainera, bigarren urtez segidan, ZINEGOAK kanala aktibatu da PRIMERAN plataforman, LGTBIQ+ filmak euskaraz ahalik eta jende gehienarengana zabaltzeko.

Zinegoak crece y se adapta a los nuevos retos y realidades siendo no solo una importante actividad cultural, sino una rotunda herramienta de transformación social. Hoy, tras 22 ediciones, Zinegoak se ha convertido en un referente a nivel nacional e internacional que cuenta en su programación con películas, obras escénicas, un espacio de industria propiamente dicho y proyectos expandidos en torno a la diversidad sexual, de identidad y género.

Zinegoak 2025, una vez más, ha escuchado algunas de las reflexiones principales presentes en la sociedad y las ha trasladado a las salas a través de diferentes propuestas culturales, reivindicado la libertad de decidir quiénes somos y cómo queremos vivir. Todo ello desde una mirada abierta a la diversidad sexual, a las distintas orientaciones, a la construcción de identidad de género o a cualquier otro elemento ligado a la sexualidad y poniendo el foco en las redes de afectos y los espacios de resistencia.

En un ejercicio de mirada al pasado y al futuro, repensamos modelos que van más allá de las estructuras tradicionales, hegemónicas y patriarcales, para construir las nuestras propias: estructuras que sostienen e impulsan espacios de resistencia, afectos y reconocimiento, donde coexisten distintas realidades que buscan desafiar y superar los diferentes sistemas de opresión que atraviesan globalmente nuestras sociedades.

La 22 edición de Zinegoak arrancó oficialmente el día 23 de junio con la inauguración que tuvo lugar en el Teatro Arriaga y terminó el lunes 30 de junio con la entrega de premios y clausura del festival. El fin de semana previo al arranque oficial se celebró el 3,2,1... Zinegoak!

Además, por segundo año consecutivo se ha activado el canal ZINEGOAK en la Plataforma PRIMERAN, con el objetivo de hacer llegar películas de temática LGTBIQ+ en euskera al máximo de personas.



OHOREZKO SARIA PREMIO, HONORÍFICO ZERO CHOU

BABESLEA PATROCINADO POR SPONSORED BY



Laguntzarekin Con la colaboración de With the collaboration of



Ohorezko Zinegoak 2025 saria, ikus-entzunezko sortzaileen eskubideak kudeatzeko DAMA entitateak babestua eta edizio honetan ere Taiwango Kultur Ministerioaren laguntza izan duena, Zero Chou zuzendari taiwandarrarentzat izan da.

Bistarako liluragarria izateaz gain, haren lanak konpromiso sakona du queer esperientziak irudikatzearekin, gai horiek oraindik ere erresistentziari eta kontserbadurismoari aurre egin behar baitiote.

Haren lana Taiwango zinemaren aberasgarri izan da, baita mundu osoko hainbat zinemagile- eta aktibista belaunaldiren inspiragarri ere. Zero Chouren narratibaren indarrak, bere konpromiso sozialak eta berrikuntza formalak zinema garaikidea eta giza eskubideen aldeko borroka ulertzeko gako bihurtzen dute.

Horregatik guztiagatik, haren lan artistikoa ezagutu nahi izan dugu, eta haren konpromiso soziala saritu, gure sariarik handiena emanaz Taiwango zinema garaikideen artean itzal eta konpromiso handienetakoak dituen artista honi, haren ausardia eta talentua aitortzeko, baita haren dedikazioa ere, mugei desafio egiten dien, estereotipoak hausten dituen eta mundu bidezkoago eta inklusiboagoa sustatzen duen zinema egiten baitihardu, nekazekin.

El premio honorífico Zinegoak 2025, patrocinado por DAMA, entidad de gestión de derechos de los creadores y las creadoras audiovisuales, y para el que en esta edición también hemos contado con la colaboración del Ministerio de Cultura de Taiwán, ha sido para la directora taiwanesa Zero Chou.

La obra de Chou no solo es visualmente impactante, sino que también está profundamente comprometida con la representación de las experiencias queer, especialmente en un contexto donde estos temas aún enfrentan resistencia y conservadurismo. Su trabajo no sólo ha enriquecido el cine taiwanés, sino que también ha inspirado a generaciones de cineastas y activistas en todo el mundo. La fuerza de su narrativa, su compromiso social y su innovación formal hacen de Zero Chou una figura clave para entender el cine contemporáneo y la lucha por los derechos humanos.

Por todo ello, hemos querido agradecer su trabajo artístico y reconocer su compromiso social con nuestro máximo galardón a una de las cineastas más influyentes y comprometidas del cine contemporáneo taiwanés, reconociendo su valentía, su talento y su incansable dedicación a crear un cine que desafía fronteras, rompe estereotipos y promueve un mundo más justo e inclusivo.



3,2,1...ZINEGOAK!




2025eko edizioa 3,2,1... Zinegoak! ekimenarekin hasi zen, jaialdiaren hasiera ofiziala baino astebete lehenago, hilaren 18tik ekainaren 22ra, hau da, asteazketik igandera, eta askotariko kultur jarduerak egin ziren hiriko hainbat espaziotan: Guggenheim Bilbao, BBK aretoa, Sarean kultur gunea, Golem Azkuna Zentroa, La Sinsorga, Bilborock eta Bira Kulturgunean.

Honako jarduera hauek programatu ziren, besteak beste: proiektzioak, hitzaldiak, antzezlanak, liburu-aurkezpenak eta musika-saioak; motorrak berotzeko, sentsibilizatzeko, eztabaidatzeko eta testuingurua sortzeko.

La edición de 2025 comenzó con 3,2,1... Zinegoak! que se celebró el fin de semana previo al arranque oficial del festival, del miércoles 18 al domingo 22 de junio y donde se desarrollaron diferentes actividades culturales por diferentes espacios de la ciudad: Guggenheim Bilbao, Sala BBK, Sarea Kultur gunea, Golem Azkuna Zentroa, La Sinsorga, Bilborock y Bira Kulturgunea.

Dentro de las actividades se programaron: proyecciones, charlas, teatro, presentaciones de libros y sesiones musicales para calentar motores, sensibilizar, debatir y generar contexto.



EGITARAUA PROGRAMACIÓN FIK DOK KRAK

Zinegoak 2025ek arreta jarri du disidentzietatik egitura eta familia tradizionaletatik harago doazen ereduak birpentsatu ahal izateko sortzen ditugun erresistentzia- eta estimu-sareetan. Begirada zabaldu nahi dugu, erresistentziarako, estimuetarako eta dibertsitatea aitortzeko eremuek sostengatzen dituzten egituretarantz.




Islatuta gelditu da hori Zinegoaken programazio osoan. Zinegoakek film luzeen programazio ofizialeko hiru kategoriak mantendu ditu, FIK, DOK eta KRAK, eta 15 filmek hartu dute haietan parte, Brasildik, Indiatik, Argentinatik, Kolonbiatik, Estatu Batuetatik, Norvegiatik, Kroaziatik eta Herbehereetatik etorritako filmek, besteak beste.

Haien artean daude honako hauek jorratzen dituztenak: bere generoa islatuko duen nortasun-agiri bat lortzeko emakume wayuu baten borroka (*Alma del Desierto*, 2024), sexu-topaketa kolektibo eta adostuei buruzko hausnarketa (*Truth or Dare*, 2024), Brigitte Baptiste biologo eta aktibista transaren planteamendu ekoqueerra (*Brigitte Planet B*, 2025), trans haurtzaroak (*Avenida Beira-Mar*, 2024), askotariko afektu-eredu eta -loturak dituzten pertsonak (*Baby*, 2024; *Between Goodbyes*, 2024; *Jone, batzuetan*, 2025).

Zinegoak 2025 ha puestu el foco en las redes de resistencia y afectos que creamos desde las disidencias, para poder repensar modelos que vayan más allá de las estructuras tradicionales y de las familias tradicionales.

Buscamos abrir la mirada a estructuras que sostienen espacios de resistencia, de afectos y de reconocimiento de la diversidad. Esto se ha reflejado en toda la programación de Zinegoak. Zinegoak ha mantenido sus tres categorías de la programación oficial de largometraje FIK, DOK y KRAK donde han competido 15 películas provenientes de diferentes países como Brasil, India, Argentina, Colombia, Estados Unidos, Noruega, Croacia, Países Bajos, entre otros.

Entre ellas, la lucha de una mujer wayúu por obtener un documento de identidad que refleje su género (*Alma del Desierto*, 2024), la reflexión sobre encuentros sexuales colectivos y consentidos (*Truth or Dare*, 2024), el planteamiento eco queer de la bióloga y activista trans Brigitte Baptiste (*Brigitte Planet B*, 2025), las infancias trans (*Avenida Beira-Mar*, 2024), y las vivencias de personas con modelos y vínculos afectivos diversos (*Baby*, 2024; *Between Goodbyes*, 2024; *Jone, batzuetan*, 2025).



EGITARAUA PROGRAMACIÓN BEGIRADAK

Lehiaketako film laburren sail ofizialak bost ziklo izan ditu, tartean ohiko bi hauek: *Hautzaroari eta Nerabezaroari* buruzkoa, LGTBIQ+ adin txikiek aurre egin beharreko errealitateak baitira; eta *Emakume zuzendariak*, LGTBIQ+ errealitateak jorratzen dituzten emakumeek egindako obrak biltzen dituena.

Horiez gain, edizio honetarako hiru ziklo sortu dira: *Maitasun Sareak*, begi-kolpe bat ematen diena estimu-sareak familiaren ikusmolde patriarkal eta tradizionaletik harago eraikitzeko askotariko moduei; *Erresistentzia Eremuak*, gorroto-diskurtsoen eta korrante ultrakontserbadoreen gorakadaren ondoriozko erasoen aurka borroka politiko aktibo bat izatearen garrantziaz hausnartzeko; eta, azkenik, *Geroa Oroimenetik*, gure iraganera begiratzen duena gure etorkizuna era kontzientean eraiki ahal izateko.

La sección oficial de cortometrajes a competición ha contado con 5 ciclos, entre ellos los ya habituales sobre *Infancia y Adolescencia*, realidades a las que las personas menores de edad LGTBIQ+ tienen que hacer frente, y el ciclo *Mujeres directoras*, donde se recogen obras dirigidas por mujeres que tratan realidades LGTBIQ+. Y se han creado para la ocasión otros tres ciclos nuevos: el ciclo *Redes de afecto* que ofrece una visión diversa sobre las diferentes formas en que se construyen las redes de afecto, yendo más allá de la tradicional visión patriarcal de la familia.

El ciclo *Espacios de Resistencia* donde se reflexiona sobre la importancia de mantener una lucha política activa frente a las crecientes agresiones derivadas del auge de los discursos de odio y las corrientes ultraconservadoras. Y el ciclo *Evocando futuros*, que ofrece una mirada a nuestro pasado para poder construir nuestro futuro de manera consciente.



EMANALDI BEREZIAK PROYECCIONES ESPECIALES

Hainbat proiektio berezi izan ditugu:


- » *17 minutos con Nora* film laburraren eta Lola Ariasek zuzendutako *Reas* filmaren proiektzioa, FAS Zineklubarekin elkarlanean antolatutako saio batean.
- » Arthur J. Bressanen GIB-HIES epidemiari buruzko fikziozko *Buddies* film luzearen proiektzioa, Zine de Barriorekin, Sarean Kulturgunean.
- » Brasilgo *Onda Nova* filmaren proiektzioa, Guggenheim Bilbaoren TOParte programaren barruan.
- » *Smoggy Queens* telesailaren bi kapituluren aurreestrenaldia, PRIMERAN plataformarekin elkarlanean, Golem zinemetan.
- » *Ser es una revuelta* saioaren aurkezpena. 70eko hamarkadako queer zinemako film zaharberrietuekin egindakoa da, Mendebaldean sexu-iraultza eta iraultza feminista definitu zuten filmez osatua.

Emanaldi berezien ondoren, ikusleek aukera izan dute pelikuletako lantaldeekin beren-beregi hartu-emanak izateko: xehetasunak ezagutu, sormen-prozesua aztertu, euren bizipen pertsonalak entzun eta abar.

Hemos contado con diferentes proyecciones especiales:

- » Proyección del cortometraje *17 minutos con Nora* y de la película *Reas*, dirigida por Lola Arias en una sesión organizada en colaboración con el Cineclub FAS.
- » Proyección de la película *Buddies* de Arthur J. Bressan, primer largometraje de ficción sobre la epidemia VIH-SIDA, en una sesión organizada en colaboración con Zine de Barrio en Sarean Kulturgunea.
- » Proyección de la película brasileña *Onda Nova* dentro del programa TOParte de Guggenheim Bilbao.
- » Preestreno de dos capítulos de la serie *Smoggy Queens* en colaboración con la plataforma PRIMERAN, en los cines Golem.
- » Presentación de la sesión *Ser es una revuelta*, formada a partir de películas restauradas de cine queer de los años 70, años que definieron la revolución sexual y feminista en el mundo occidental.

Tras las proyecciones especiales el público ha podido profundizar con los equipos de las películas acerca de los cruces que se producen en la obra, el proceso creativo, quienes la interpretan y sus vivencias personales.



ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCENICAS

- » *Hermafroditas a caballo o la rebelión del deseo* antzezanaren aurkezpena. Pieza hau garrasi eszeniko bat da, antzerki dokumentala eta freak show bat nahasten dituen intersexualitatea ikusgai egiteko; ezarritakoa auzitan jartzen eta, aldi berean, dibertsitatea, etiketarik gabe existitzea eta beldurrik eta baimenik gabe izateko eskubidea aldarrikatzen dituen obra bat da, Getxoko Kultur Etxearekin elkarlanean egindakoa.
- » Dantzertekin, hau da, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolarekin, elkarlanean ekoiztutako *Kaltetuen Elkarte* antzezanaren estreinaldia. Taldean sortutako hausnarketa performatibo bat da, generoari eta sexu-dibertsitateari buruzkoa, komediaren bitartez aztertzen duena nola egin aurre mainstream zineman generoen eta sexu-orientazioen dibertsitateari ezari.

- » Presentación de la obra teatral *Hermafroditas a caballo o la rebelión del deseo*. Esta pieza es un grito escénico que mezcla teatro documental y freak show para visibilizar la intersexualidad. Una obra que cuestiona lo impuesto y reivindica la diversidad, la existencia sin etiquetas y el derecho a ser, sin miedo y sin permiso. Esta obra se realiza en colaboración con el Aula de Cultura de Getxo.
- » Estreno de la obra teatral *Kaltetuen Elkarte*, producida en colaboración con Dantzerti, Escuela superior de arte dramático y danza de Euskadi. Una reflexión performativa de creación colectiva sobre el género y la diversidad sexual donde en clave cómica se analiza cómo hacer frente a las consecuencias derivadas de la falta de diversidad en géneros y orientaciones sexuales en el cine mainstream.



EZTABAIDA eta HAUSNARKETA ENCUENTROS DEBATE Y REFLEXION BILGUNE

Gune hau topagune, eztabaida eta hausnarketarako espazio gisa finkatu da Zinegoak barruan, eta bertan honako hauek aurkeztu dira:

- » Gauak musika-saioaren aurkezpena. Baionako Naia Burukoak eta Argentinako Lea Marie Uriak sortutako bikote elektroexperimental honek hainbat gai esploratzera gonbidatzen gaitu, esaterako, nortasunaren bilaketa, transtasuna eta naturaren ahala.
- » «Lesbofobia Ekuatore Ginean: herentzia koloniala eta borroka kolektiboa» saioaren aurkezpena. Somos Parte del Mundo (SPDM) kolektiboko bi aktibista lesbianak LGTBQ+ pertsonak Ekuatore Ginean bizi duten egoera salatu zuten eta LGTBQ+ eronken eta Nazioarteko aliantzen inguruan hausnartu zuten, Zuriñe Rodríguez kazetariarekin batera.
- » Zinaizen lehiaketaren gala; bertan aurkeztu ziren trans bizipenei buruzko ikus-entzunezko lehiaketaren lehen edizioko obra finalistak.
- » «ERRE! Errebeldiak, errelatoak, erritmoak» saioa, La Sinsorgarekin elkarlanean egin zena Bira Kulturgunean. Bertan, *(h)amor bi(y)bollo* (Continta me tienes, 2025) liburua aurkeztu zuten Milanes Rivasek eta June Fernándezek. Gero, Luis Pinto - Guagua Rekia artistak *GIBaren historia nirea ere bada* performancea egin zuen, eta, azkenik, Hija del Nopalen musika-saioaz gozatu genuen, artistak disfrutatzeko eskubidearen eta Abya Yalako kulturak duintzearen inguruan eginiko apustu politikoaz.
- » Apoyo Positivoren ikus-entzunezko unibertsoa. 10 urte aktibismotik queer zinema egiten saioa. Ibilbide bat haren obra ezagunenetako batzuetan barrena, Reyes Velascoren eskutik, eta obra horien artean, besteak beste, Transición film laburra, haren zuzendari David Velduquerekin, *Sabor a queer* podcast ezagunaren aurkezlearekin.
- » Musika-saioa Plazeraturen eskutik. Plazeratu Iruñerriko queer kolektibo bat da, festa-guneak espazio kritiko gisa bizitzeko eta okupatzeko beharretik sortua, han gure musika, artea, gorputzak eta egiteko moduak aldarrikatzeko eta ikusarazteko.

Esta área se consolida como un espacio de encuentro, debate y reflexión dentro de Zinegoak y en ella se han presentado:

- » La presentación de la sesión musical Gauak, una pareja electro-experimental formada por la baionarra Naia Burukoa y la argentina Lea Marie Uria, donde nos invitan a explorar temas como la búsqueda de la identidad, lo trans y el poder de la naturaleza.
- » Presentación de la sesión Lesbofobia en Guinea Ecuatorial: herencia colonial y lucha colectiva. Dos activistas lesbianas de Somos Parte del Mundo (SPDM) junto con la periodista Zuriñe Rodríguez denunciaron la situación de las personas LGTBQ+ en Guinea Ecuatorial, y reflexionaron sobre los retos LGTBQ+ y las alianzas internacionales.
- » Gala Concurso Zinaizen donde se presentaron las obras finalistas de la primera edición del concurso de contenidos audiovisuales centrado en vivencias trans.
- » Sesión RRR! Rebeldías, relatos y ritmos realizada en colaboración con La Sinsorga y realizada en Bira Kulturgunea. En ella se presentó el libro *(h)amor bi(y)bollo* (Continta me tienes, 2025) con Millanes Rivas y June Fernández. Después, el artista Luis Pinto - Guagua Rekia realizó su performance *La historia del VIH también es mi historia*. Y para finalizar, contamos con la sesión musical de Hija del Nopal, una apuesta política centrada en el derecho al goce y la dignificación de las culturas de Abya Yala.
- » Sesión El universo audiovisual de Apoyo Positivo. 10 años de cine queer desde el activismo. Un recorrido por algunas de sus obras más destacadas de la mano de Reyes Velayos. Entre ellas el cortometraje Transición junto a su director David Velduque, presentador del conocido podcast *Sabor a queer*.
- » Sesión musical de la mano de Plazeratu, un colectivo queer de Iruñerria que surge de la necesidad de habitar y ocupar espacios de fiesta como espacios críticos donde reivindicarnos y visibilizar nuestra música, arte, cuerpos y formas de hacer.



EKITALDIAK GALAS

HASIERA EKITALDIA GALA INAUGURAL

Ekainaren 23an, 19:30ean, Zinegoak 2025 edizioaren inaugurazio-gala egin zen, Nerea Arriola aktoreak eta Divina Comedia drag artistak aurkeztua. Gainera, Esanezinen musika-emanaldiaz eta Aner Peritzen bertsoez gozatu ahal izan genuen.

Gala honetan, Zero Chou zinemagile taiwandarrak ohorezko Zinegoak 2025 saria jaso zuen, DAMAK babestutakoa. Gala amaitzeko, Sail Ofizialeko Sara Fantova zuzendariaren *Jone, batzuetan* film luzearen Euskadiko estreinaldia izan zen, eta filmeko taldeko hainbat kidek aurkeztu zuten.

AMAIERA EKITALDIA GALA de CLAUSURA

Ekainaren 30ean sari banaketa eta itxiera gala egin ziren Bilborocken. Unai Izquierdo aktorea eta Irantzu Varela kazetari feminista izan ziren aurkezleak, eta bertan epaimahai ezberdinek aurtengo saridunak nortzuk izan ziren iragarri zuten. Galari amaiera emateko, EITBk babestutako eta 4.000 euroko ZG Sari Nagusia irabazi zuen filma proiektatu zen. Inaugurazio ekitaldia eta itxiera ekitaldia streaming bidez jarraitu ahal izan ziren EITBri esker.

El día 23 de junio a las 19:30 en el Teatro Arriaga tuvo lugar la gala de inauguración de Zinegoak 2025 que fue presentada por las actriz Nerea Arriola y la artista drag Divina Comedia. Además se pudo disfrutar de la actuación musical de Esanezinen y de los bertsos de Aner Peritz.

Durante la gala, la cineasta taiwanesa Zero Chou recibió el premio honorífico Zinegoak 2025 patrocinado por DAMA. La gala concluyó con el estreno en Euskadi del largometraje de la Sección Oficial *Jone, batzuetan* de la directora Sara Fantova que fue presentado por gran parte del equipo de la película.

El 30 de junio se realizó la entrega de premios y gala de clausura en Bilborock. En ella se dio paso a los distintos jurados del festival que dieron a conocer el palmarés en un acto presentado por el actor Unai Izquierdo y la periodista feminista Irantzu Varela. La gala concluyó con la proyección de la película ganadora del Gran Premio ZG, patrocinado por EITB y dotado con 4.000€. Tanto la gala de inauguración como la gala de clausura pudieron seguirse vía streaming gracias a EITB.



ZG PRO Zinegoak zinemagintzara bideratzen duen espazioa da, zehazki, LGTBIQ+ ikus-entzunezko produkzioarekin lotutako berrikuntza, ikerketa eta prestakuntzara. Arlo hori funtsezkoa da sexu-, identitate- eta genero-aniztasunarekin lotutako zinemaren garapenean lan egiten duten eragileak eta espazioak ikusarazteko, eta eragile horiek prestakuntza-gune espezializatuera hurbiltzen laguntzeko.

Joera horri bultzada bat emateko, elkarlanean aritu gara berriz Europa hegoaldeko LGTBIQ+ zinemaldien sarearekin, Queer Lisboa eta Queer Porto, Mix Milano, Parisko Chéries-chéris eta Zinegoak biltzen dituenarekin. Batera lanean aritu gara, gainera, Bartzelonako Mostras Fire!!-ren Fire!! Labekin eta Queercinelabekin, zeinak Triángulo fundazioaren zinemaldiak biltzen baititu: Lesgaicinemad, Cinhomo, Andalesgai, Fancinequeer eta Zinegoak ZG PRO espazioa.

Sareak, Donostiako Zinemaldiarekin (SSIFF) batera, ZG PRO Industry SSIFF saria ematen dio laborategi bakoitzean parte hartzen duen proiektu bati.

ZG PRO bi jardunalditan garatu da. Lehenengoan, Masterclass Jardunaldiak egin dira, eta João Ferreira, Alejo Duclós, Brigitte Baptiste, Gabriela Wiener, Tatiana Romero, David Velduque, Ehgam, Emilio Papamija eta La Morada kolektiboa izan dira parte-hartzaileak.

ZG PRO LAB jardunaldian, hautatutako proiektuak pitching formatuan aurkeztu zitzaizkion sektoreko hainbat profesionalak eta LGTBIQ+ zinemaldien Europa Hegoaldea sareko kide batek osatutako epaimahaiari. Gainera, 1 to 1 saioak egin ziren.

Halaber, DAMAK, egile-eskubideen kudeaketan espezializatutako Espainiako erakundeak, Zinegoak 2025 ohorezko sariaren babesleaenez, master class bat eman zuen egile-eskubideen eta zinema-ekoizpenaren arteko loturaren inguruan.

ZG PRO es el espacio que Zinegoak destina a la industria cinematográfica, en concreto a la innovación, la investigación y la formación en relación con la producción audiovisual LGTBIQ+. Esta área es esencial para visibilizar agentes y espacios que trabajan en el desarrollo del cine relacionado con la diversidad sexual, de identidad y género, y para propiciar el acercamiento de estos agentes a los espacios de formación especializados

Para apoyar esta tendencia, hemos vuelto a contar con la colaboración de la Red de Festivales LGTBIQ+ Europa Sur, donde se encuentran los festivales Queer Lisboa y Queer Porto, Mix Milano, Chéries-chéris de París y Zinegoak. Y con La Red Estatal de Laboratorios LGTBIQ+ formada por Fire!! Lab, de la Mostras Fire!! de Barcelona; el Queercinelab, que engloba los festivales de Fundación Triángulo: Lesgaicinemad, Cinhomo, Andalesgai, Fancinequeer y el espacio ZG PRO de Zinegoak. La Red junto con el Festival Internacional de Cine de San Sebastián (SSIFF), otorga el Premio ZG PRO Industry SSIFF a un proyecto participante en cada laboratorio.

ZG PRO se ha desarrollado en dos jornadas, la primera donde han tenido lugar las Jornadas de Masterclasses en las que han participado João Ferreira, Alejo Duclós, Brigitte Baptiste, Gabriela Wiener, Tatiana Romero, David Velduque, Ehgam, Emilio Papamija y el colectivo La Morada.

Y la jornada ZG PRO LAB, donde se presentaron en formato pitching los proyectos seleccionados al Jurado, conformado por diferentes profesionales del sector y un representante de la Red de Festivales LGTBIQ+ Europa Sur. Además se realizaron las sesiones 1 to 1.

Asimismo, DAMA, entidad española de gestión especializada en derechos de autor, patrocinadora del Premio honorífico Zinegoak 2025, impartió una master class sobre la relación de la gestión de derechos y la producción cinematográfica.



ZINEGOAK

Jaialditik independentea den programa hau Zinegoak Elkarteak martxan jarri zuen 2022an. Horrekin, publiko berrien sentsibilizazioan eta garapenean jartzen da arreta, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeei zuzenduta baitago. Urtean zehar garatzen da, kulturara eta LGTBQ+ ikus-entzunezko produkziara sartzeko espazioak irekitzeko asmoarekin, sexu-aniztasunarekin, identitatearekin eta generoarekin zerikusia duten gai guztiak hobeto ulertzen laguntzeko, ikus-entzunezko hizkuntzaren berezko elementuen bitartez. EAEko hainbat herritan egiten da urtean zehar, eta laugarren edizioa du aurtengoa.

Es un programa independiente al festival desarrollado por la Asociación Zinegoak que se puso en marcha en 2022. Con él se pone el foco en la sensibilización y el desarrollo de nuevos públicos ya que está dirigido a centros educativos de educación secundaria, bachiller y formación profesional. Se desarrolla a lo largo del año con la intención de abrir espacios de acceso a la cultura y la producción audiovisual LGTBQ+, que ayuden a poder tener una mayor comprensión de todas aquellas cuestiones que tengan que ver con la diversidad sexual, de identidad y género, a través de los elementos propios del lenguaje audiovisual. Se lleva a cabo por diferentes localidades de la CAV a lo largo del año y va por su cuarta edición



ZG HEDAPENA

Zinegoak elkarteak garatutako programa independentea da, eta arreta jartzen du ikusleen garapenean, sensibilizazioan, banaketan eta LGBTIQ+ programazioaren erakusketan Euskadiko eta Nafarroako udalerrri ezberdinetan. Programa hau 2005ean sortu zen, sexu-, identitate- eta genero-aniztasunari lotutako kultura-ekoizpena zabaltzeko eta zuzentzeko tresna gisa. Izan ere, herri batzuetan zaila da oraindik LGBTIQ+ edukia duten lanak iristea, bai eta LGBTIQ+ komunitatearen eta gizartearen arteko elkargune diren sensibilizazio-jardueretara edo bestelako jardueretara ere. Maiatza, ekaina eta uztaila bitartean egiten da. Aurten 60 proiektzio baino gehiago egin dira 47 herritan.



Es un programa independiente desarrollado por la Asociación Zinegoak que pone el foco en el desarrollo de audiencias, sensibilización, distribución y exhibición de programación LGBTIQ+ por diferentes localidades de Euskadi y Navarra. Este programa nació en 2005 como herramienta para ampliar el alcance y dirigir producción cultural en relación a la diversidad sexual, de identidad y género, a aquellos núcleos de población donde todavía es más difícil la llegada de las obras de contenido LGBTIQ+, así como las actividades de sensibilización u otras que supongan un punto de encuentro entre la comunidad LGBTIQ+ y la sociedad. Este año 2025 han sido algo más de 60 proyecciones en 47 poblaciones.

Araba

1. Aiara
2. Amurrio
3. Laudio

Bizkaia

4. Bakio
5. Balmaseda
6. Barakaldo
7. Basauri
8. Bermeo
9. Durango
10. Erandio
11. Galdakao
12. Igorre
13. Mallabia
14. Markina-Xemein
15. Mungia
16. Muskiz
17. Ondarroa
18. Orozko
19. Plentzia
20. Sestao
21. Zaldibar

Gipuzkoa

22. Aduna
23. Arrasate
24. Astigarraga
25. Azpeitia
26. Beasain
27. Bergara
28. Deba
29. Donostia
30. Eibar
31. Hernani
32. Hondarribia
33. Lazkao
34. Legazpi
35. Legorreta
36. Oiartzun
37. Oñati
38. Ordizia
39. Orio
40. Tolosa
41. Villabona
42. Zaldibia
43. Zumaia
44. Zumarraga

Nafarroa

45. Baztan
46. Cendea de Olza
Oltza Zendea
47. Zizur Nagusia



Amatzailea Organiza
ASOCIACIÓN
ZINEGOAK
ELKARTEA

Bizkaia
berdindu!

Bizkaia
Berdeak

Bizkaia
Berdeak

eitb

PRIMERAI

ZINEGOAK ZENBAKITAN EN NÚMEROS

63 aurrez aurreko proiektzio
63 proyecciones presenciales

10 jarduera eszeniko edota kultur aurkezpen
10 actividades escénicas y/o presentaciones culturales

6 masterclass
6 masterclasses

18 film luze
18 largometrajes

39 film labur
39 cortometrajes

47 proiektzio ZG Hedapenean eta 60 proiektzio baino gehiago
4 herri / localidades Zinegogoak

+ %50 emakumeek edo ezbitarrek zuzendutako lanak
+ 50% de obras y actividades lideradas o dirigidas por mujeres o personas no binarias

ARRAKASTA eta IRISMENA ÉXITO y ALCANCE

**IKUS-ENTZULEEN
EBOLUZIOA eta BISITAK JAIALDIAN**
EVOLUCIÓN AUDIENCIAS
y VISITAS al FESTIVAL

IKUS-ENTZULEAK
ASISTENCIA 2025:
5.177

AURREZ AURREKO IKUS-ENTZULEAK:
ASISTENCIA PRESENCIAL:
5.177

Zinegoak + Zg Hedapena + ZineGogoak:
2.627 + 1.650 Estimazioa Estimación
+ 900

AIPAMENAK INTERNETEN MENCIONES EN INTERNET

Web:
10.956 Erabiltzaile usuariox
31.280 saio sesiones

Bisitak 2024
Visitas 2024:
11.670

RRSS:

FACEBOOK
5.949 Erabiltzaile usuariox

INSTAGRAM
6.259 Erabiltzaile usuariox
(+ 1199 desde 2024tik)

OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO en los MEDIOS

Zinegoak 2025 programak agerraldiak izan ditu hainbat komunikabidetan: telebista, irrati, egunkari, informazio-agentzia, hileroko agenda, aldizkari espezializatu, blog...


Telebistan, nabarmentzekoa da ETBko entretenimendu eta albistegietako hainbat saiotan izan dugun parte-hartzea. Gainera, jaialdiaren irekiera eta itxiera ekitaldiak zuzenean jarraitzeko aukera izan da.

Halaber, PRIMERAN plataforman sortu dugun ZINEGOAK kateak LGTBI+ gaiak lantzen dituzten pelikulak eskaini ditu, jaialdian parte hartu duten hainbat lan eskainiz, eta baita ere bestelako LGTBI+ edukiak.

Zinegoak 2025 ha tenido apariciones en distintos medios de comunicación: televisiones, radios, periódicos, agencias de información, agendas mensuales, revistas especializadas, blogs...

En TV destaca la presencia en diversos espacios de entretenimiento e informativos de ETB. Además de la posibilidad de seguir en directo las ceremonias de apertura y clausura del festival.

De la misma manera, el canal ZINEGOAK en la plataforma PRIMERAN ha ofrecido películas de temática LGTBI+ que han formado parte del festival a lo largo de sus distintas ediciones, además de otros contenidos LGTBI+.



OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO en los MEDIOS

PRENTSAN ARGITARATUTAKOAK DESTACADOS EN PRENSA

- » Berria
- » El Correo
- » Diario Vasco
- » Gara
- » Deia - Ortzadar
- » El País
- » El Diario.es
- » Europa Press
- » EFE
- » EITB eus
- » Zinea.eus
- » Argia
- » La Ría del Ocio
- » Uriola
- » Zuzue
- » AUX Magazine
- » Noiz
- » Kultur Sharea
- » Bizkaie!
- » Kulturklik
- » Nontzeberri
- » Periódico Bilbao
- » Pikara Magazine

AGERPENAK TELEBISTAN DESTACADOS EN TV

- » Informativos ETB 1 y ETB 2
- » ETB 1- Egun on Euskadi
- » ETB 1- Biba zuek!
- » ETB 2- Quédate
- » RTVE - Telenorte Informativos
- » Hamaika TB - Gurean gaur
- » Hamaika TB - Informativos
- » Tele 7 - Informativos
- » Telebilbao - Informativos


AGERPENAK IRRATIETAN DESTACADOS EN RADIO

- » Radio Euskadi
- » Radio Bilbao - Cadena Ser
- » Euskadi Irratia
- » Gaztea
- » Bizkaia Irratia
- » Bilbo Hiria
- » BI FM
- » Onda Cero
- » RNE
- » Radio Nerviión
- » Naiz Irratia

ELKARRIZKETAK ETA LANKIDETZAK ENTREVISTAS Y COLABORACIONES

- » Hasiera eta Amaiera ekitaldien zuzeneko emisioa EITB.EUS webgunean.
- » Emisión en directo en EITB.EUS de las Galas de Inauguración y Clausura.
- » Jarraipen zabala jaialdiak antolatutako prentsaurrekoetan.
- » Amplia cobertura en las ruedas de prensa organizadas por el festival.
- » EITBko hainbat saiotan zuzeneko elkarrizketak: "Quédate", "Biba Zuek!", "Egun on Euskadi".
- » Entrevistas en directo en varios programas de EITB: "Quédate", Biba Zuek!", "Egun on Euskadi".
- » Elkarrizketak telebistan: Hamaika Telebista, ETB (Gaur Egun, Teleberri).
- » Entrevistas en TV: Hamaika Telebista (Gurean gaur), ETB (Gaur Egun, Teleberri).
- » Zuzeneko elkarrizketak hainbat irratitan: Radio Euskadi, Naiz Irratia, Euskadi Irratia, Bilbo Hiria, Radio Nerviión, Bizkaia Irratia, RNE...
- » Entrevistas en directo en radios como Radio Euskadi, Naiz Irratia, Euskadi Irratia, Bilbo Hiria, Radio Nerviión, Bizkaia Irratia, RNE...
- » Hainbat hedabidetan elkarrizketak jaialdiak gonbidatutako artista eta gonbidatuei: El Correo, Deia, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, EITBko albistegiak, Pikara Magazine...
- » Entrevistas a artistas y personas invitadas al festival en varios medios de comunicación: El Correo, Deia, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Informativos de EITB, Pikara Magazine...





ZINEGOAK 2025en LABURPENA IRUDITAN ZINEGOAK 2025 VIDEO RESUMEN

https://youtu.be/6-XLMlt57-s?si=gW3uXRVHEI_-GTXP



Antolatzailea Organiza

ASOCIACIÓN
ZINEGOAK
ELKARTEA


Babesleak Patrocinan



Laguntzaileak Colaboran



Laguntzarekin Con el apoyo de



ZINE GOAK

Eskerrik
asko!

WWW.ZINEGOAK.COM

Bilboko LGTBQ+ 22. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia
22º Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas LGTBQ+ de Bilbao
22nd Bilbao International LGTBQ+ Film and Performing Arts Festival